JORRALLA
14
Astartea

Bilbao, 1936

Euzkadi

ARPIDE-SANEURIJA

Bilbao'kua	9,00	iŕko.	iru ile.
Bilbao'atazkua ...	11,25	"	"
Idazki-itunmena ...	62,00	"	urtez
Atzeŕijetakuak ...	112,50	"	"

Beldayen itundube

XXIV urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.° || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 7.270 zenbakija

Gayak

IGANDIA

Igazi dan igandia; gasterijaren alatasuna ta umeterijaren poza ixaten dan Beŕbizkunde-igandia, aurpegi ilunaz eta begijak negaŕez ebazala agertu yakun.

Garixuma luzian dantza-gurarija biztuta aurkitzen ziran gastedijarentzat eta Pasko-mokotzak itxaroten ebezen umeterijarentzat biaŕba kalte aundirik ezeban ekaŕiko igande-goxeko euri-loŕiñak. Baña baj mendirantz egiteko gerteuta egon ixan ziran mendi-zalientzat. Mendijak eguraldi ona eskatzen dau, ba. Eguraldi ilunaz, mendija, itzala ixan oi-da. Itzala ta otza be bai, bata bilduŕgaŕija be.

Mendiko alaŕasuna, bere galuŕa oztinduten dauan ortze oztiñan egoten da, ta ortze oztiñatik mendi-galuŕaraño jasten dan eguzki beruaren argijan.

Beŕbizkunde-igandia mendigoxalientzat erdi oŕti-emetikua ixan ba-zan be, Zabalbide'ko pelota-txapelketara igandoro juan oi - diranentzat, iñozkorik egokijena ixan zan. Ori zala-ta-edo, Zabalbide'ko pelotatoki begikua, goi ta be beteta ikusi zan.

JOKALDIJAK

Oneik iru ixan ziran: bat lenengo malakua, ta bi bigaŕenekuak.

Lenengo ekiñaldirako buŕuka-tokiratu diranak, Erandio-Goikua ta Sestao dira.

Bagan eta Ortuondo, Erandio-Goikua'ren aldezliak, gaŕiko goŕijakaz jantzi dira.

Sestao'ren aldezliak diran Elortza ta Artamendi, ostera, oŕlegijakaz.

Lau pelotarijak lekuratu dira, laurak buŕuka-auzija saŕtu. Gurari batek igiŕu dauz, gurari batek buŕuka imiñi be: garaitzale-gurarijak.

Artamendi auŕian jaŕi da. Buŕukea asi da. Eta lenengo iru jaŕaiko eskuraldijak erandiotaŕentzat zenbatu dira.

Laugaŕen eskuraldija, baña, Artamendi'k atzera jauŕti ta ormari dautsala imiñi daben pelotea, Ortuondo eskertijak ezin jaso ixan dau, ta 3-1 jaŕi dira.

Artamendi'k peloteari gogotsu erasoten dautso. Naikua ondo atzeratuten dau, ta irabazi ezta be 18'tik gora igon go diranen antza erakusten ixan dau.

Baña ez. Erandiotaŕak jokolarijaguak diranen antza, arin agertu dauskube.

Bagan, auŕian, pelotari aundija da; soñez be aundija, ta pelotan be aundija. Eta une batzubetan, bere buruba baño asko goragotik atzerantz duan peloteari auŕera-eragiŕeko, kanerdj baño geyago azi oi-da, ta gotik-berako jokera artezijaz, iges-duan pelotea ekaŕi.

Olango auŕelari trebiari, atzera uŕun duazan pelota bijuŕijak yaoken lekura biuŕtuteko Ortuondo'ren eskeŕa emon -ezkero, ¿jokaldija nok irabazi?

Artamendi'k eta Elortza'k, Bagan eta Ortuondo'ri irabazteko gurariz, leŕenak egin ebezan. Leŕenak eta bost eginda be, baña, 13 eskuraldira baño etziran eldu. Jokua, ba, 22-13 amaŕu zan.

MUNDAKA TA ARIATZA.—Agiŕezarobe ta Laŕabazteŕ mundakaŕak, eta Beŕiozabal eta Zufiria areatzaŕak ezagututen eztabezan pelota - zale gitxi ixango dira. Oneik, lau pelotarijoik, buŕukarako jayuak dirala dirudije. Batez be bi, alde bitzubetako auŕelarijak, baŕiro jayo biaŕa ba'lebe ta gixa-ordez basapizti biuŕtuta jayo, katamotzak ixango litzakez. ¡Onein buŕukarako amuŕuba! Beŕiozabal'ek, pelotea ormearen zabalian apuŕtuta ikusi-guriak zirikatuta, al ebanik indaŕtsuben oŕmara jauŕtiŕeko asmoz, bere soin-atal gustijetako indaŕa esku-zabalian batzen eban. Eta oŕetarako, oñak beyari sendo ezaŕita iminŕen ebazan. Gero, baŕiz, besua zabaltzen eban alderdirantz gurutzatuten ebazan. Gaŕija be, besua zabalduaz joyan lekurantz bijoŕtuten eban; abua zabaldu, miña beko espan-ganeratu, begijak ertsi, ta gorputz eta arima, bera dan gustijaz peloteari emon. Auxe da Beŕiozabal'ek peloteaz egiŕen ebana.

Mundakaŕak be edeŕto erantzuten eutsoen.

Eta batak gogoŕ jo, ta bestiak gogoŕ erantzun, azkenengo saspiñako bardiñaldiraŕte, olantxe jaŕaŕu eben.

Saspitik, gorantza, baña, Beŕiozabal'en kemena ta Zufiri'en zentzuna, nausituten asj ziran. Saspitik ogeiraŕteko eskuraldijak, Beŕiozabal eta Zufiri'k, jaŕayan irabazi ebezan.

Uŕengo eskuraldija, baña, mundakaŕena ixan zan. Eta 8-20 jokua imiñi ixan ebenian, mundakaŕ atzelarija auŕian jaŕi zan. Pelotea ataraten be bera asi zan, eta ataralditik lau jaŕaiko eskuraldi irabazi.

Ataralditik lau, ta atara ta geroko ekiŕaldi labuŕ baten ondoren, beste iru jaŕaiko eskuraldi be, mundakaŕak irabazi ebezan, eta 14 ta 20 jokua imiñi.

¡Ango txaluak, ango ujujuak eta pelotarijen aŕteko urduritasuna, neuŕitik atazkuak ziran!

Mundakaŕ Laŕabazteŕ ule-goŕijak pelotea zoŕotz atara be egiten eban gero...!

Amaboskaŕen eskuraldija irabazteko ustez atara eban pelotea, baña, zoŕotzen-zoŕotzez, labuŕegi atara eban, ataraldiko leŕorano be etxakan eldu-ta. ¡A lako tamalik! Mundakaŕak manduak ilda geratu ziran. Beŕiozabal'ek, ostera, ija ebagijan eukan arnasea, auspuak zabalduta aŕtu eban. Eta jokua irabazteko biaŕ eban eskuraldi bakaŕa, pelotea zoŕotz eta bijoŕ ataraten maxula ixan be-ta, atzera uŕun eta oŕma-txokuan saŕtu eutsen peloteaz irabazi eutsen.

Eta katamotzen buŕukea baño be buŕuka gogoŕagua zala zirudijan pelota-buŕukea, areatzaŕen garaitzeaz amaŕu zan, euren alde 14-22 eskuraldi ixan ebezan-eta.

Olango buŕakaldi gogoŕak ikusteko, Zabalbide'ra juan biaŕ ixaten da, irakuŕle. Euzko-Batzokijeta'ko txapela, aldintsuba da ixan be.

ETXEBARI ETA BEŔMEO.—Ona emen beste buŕukaldi gogoŕ bat.

Oraingo au, lenengo malakuena dogu. Etxebaŕi'ko endore - idazkarijak, Ituŕiaga ta Eloŕiaga pelotarijak, Bizkai'ko Batzoki-txapelketetan ezagunak doguz, bata ospetsubak be.

Bermeo'ko Ruiz Etxebaŕia eta Asla ez ain ezagunak, beraz bestiak añako ospetsubak bez.

Ondo ezagutzen etziranak ziralako -edo, etxebaŕitaŕakingo buŕukean jokuaren erdira elduko ziranik be iñok ezeban uste. Joko laurenera elduko ziranik bez, batzuk, ezta ikusteko gai ixango zan jokorik egingo ebenik be.

Beraz, jokua asi baño len, an aurkitzen ziran pelota-zale taldia erdi-otz eguan.

Jokua asi zan. Eta ain zuzen be, etxebaŕitaŕak, iru jaŕaiko eskuraldi irabazi ebezan.

Iru jaŕaiko eskuraldijoik etxebaŕitaŕen alde ikustia, lengo eduŕaren ganera ixotza jaustia lez ixan zan. Beŕmeotaŕen trebetasuna ezagutzen ezebenak, beriala esan eben: "antzik bez". "Bost egiŕen ba-dautsez, naikua".

Uŕengo eskuraldija, baña, Ituŕiaga'k burni-goitxura zoŕotz be zoŕotz zuzendu eban pelotea burni-gane jausj zalako, bermeotaŕentzat ixan zan. Beraz, 3-1 jokua jaŕi zan.

Jaŕaiko eskuraldija, ostera, auŕerago galdu ebanaren kiŕugaŕitzat-edo, Ituŕiaga'k berak irabazi eban, txokora artezita maxu-antzo jaurti eban peloteaz irabazi be.

Beste eskuraldija be, zabalera zoŕotz eta indaŕtsu jaurtiriko peloteaz, Ituŕiaga'k berak irabazi eban, eta 5-1 jokua imiñi.

Ostera be, gure inguru-biran, lengo abotsa entzun zan: "antzik bez".

Ituŕiaga seigaŕen eskuraldijaren bila dua. Pelotea zoŕotz atara dau. Asla'k atzetik jaso dautsa, ta lauren aŕtian pelota-jokua imiñi.

Eta batak be jo ta bestiak be jo, pelotea ormara osteraka darabile.

Azkenian be, baña, baten batek galdu biaŕ-ta, Eloŕiaga'k galdu eban.

Bermeotaŕak bizkoŕtuten duaz. Pelotea aŕaun-palatzat-edo aŕtu dabe, ta uŕ-gora egiŕen asj dira.

Eta euren eraso-aldijan, bosna bardindu aŕte eztira gelditu.

Bardindu, ta auŕera urten dira, ta 8-13 euren alde jokua imiñi.

Ruiz Etxebaŕia auŕelari trebia, eraso-aldj gogoŕ aren ondoren be, asikeran baxen kementsu aurkitzen zan. Asla atzelarija ez ostera. Makalduta eguan, indaŕak galduta.

Eta etxebaŕitaŕak, makalaren eŕuki barik, arixeri joten eutsoen.

Etxebaŕitaŕen gogoŕkerijak, Ruiz Etxebaŕia'ren bijotza bigundu - egin eban, eta nekatuta eguan lagunaren zamia arinduten atze-alderatu zan.

Lagunaren gurutzeaz zamatute arek, baña, bere ondorena ixan eban. Ruiz Etxebaŕia'k bere-gane aŕtu ixan eban zama arek, etxebaŕitaŕak arinduta imiñi ebazan. Eta ori zala-ta, zortzi jaŕaiko eskuraldi irabazi eutsezan, eta 18-14 jokua euren alde imiñi.

Ruiz Etxebaŕia'k ori ezin jasan eban. Eta Asla atzera bidalduta, auŕera-egin zan, eta baŕijen-baŕi pelotea astinduten asi. Eta astin-aldi oŕetan, iru jaŕaiko eskuraldi irabazi dauz. 18-17 dagoz. Amazortziña bardinduteko asmoz atara eban pelotea, labuŕtxu neuŕtu ebalako, neuŕi-baŕuban geratu yakan, eta eskuraldija galdu. Uŕengo eskuraldija be, etxebaŕitaŕak irabazi eben. 20-17 dakusguz. Geruago, 20-18. Uŕengo, 20-19.

Ruiz Etxebaŕia'ren eskuraldi bakotxak, Zabalbide gustija igiŕuten eban. ¡Areik ziran txaluak, areik ujuju ta oyuak! Uŕengo eskuraldijan, baña, 21-19 jokua jaŕi zan.

Ondiño be Ruiz Etxebaŕia'k, galdutzat ezin emon eban. Asla gixagaxua, auldudta eguan. Ituŕiaga, luŕ-jota. Eloŕiaga, zutunik egon ezinda.

Alan be, baña, jokua amaŕu egin biaŕ zan-eta, etxebaŕitaŕak azkenengo eskuraldijaren bila urten ziran. Ruiz Etxebaŕia'k bidera urten eutsen, eta zabalerantz tximistea baxen zoŕotz jauŕtitako peloteaz, 20'gaŕen eskuraldija irabazi.

Bermeotaŕen 20'gaŕen eskuraldi arek, iñun ziran txalo ta ¡gora! didaŕak irabazi ebazan.

Uŕengo eskuraldija be, bermeotaŕen alde jausiko zala uste zan. Ruiz Etxebaŕia, ba, geruago ta senduago egiten zan.

Zoritxaŕez, baña, arteziŕasun gustijaz burni-goitxurantz zuzendu eban pelotea, burni-gane jausi yakan, eta 22-20 etxebaŕitaŕen alde jokua amaŕu.

¡A lango buŕukarik! ¡Bermeo'ko Ruiz Etxebaŕia pelotari aundija dok, mutilak! Aundija ala txikija dan jakiŕeko, Etxebaŕi'ko Ituŕiaga ta Eloŕiaga'ri itandu baño eztago. ¡Areik esango dautzube Ruiz Etxebaŕia nor dan!

Uribiŕaŕte'taŕ Ibon

Zortzitik-Zortzirat

AROA.—Egun hautan aro guzietarik ukhan dugu: bero ezin jasanak, haizeh otza, eta euria. Bainan Eŕamu egunean aro hauta baiginuen, urthe ona behar omen dugu. Hemengo chahar batzuek oraino finkatuko dautzute Ebanjelioko hitz bat bezala: "Eŕamuko Ebanjelioa eŕatean nolako baita airea, nalakoa izanen da urthearen lauetarik hiru!" Agian ba aurthen...!

PILOTA.—Buruz buru (mano a mano) arizan dire Baionan Uŕuty famatua eta Harambilet gaztea. Dirua puŕustan Uŕutiren alde ateratu da... eta Harambiletak aise irabazi. Nola hunek ez baitu oraino hemeretzi urthe baizik, eginen du bide: hemendik bi urtheren buruan Aŕayet, Damestoy eta gaineratekoak amor eman beharko diote. Gora Harambilet, Ezpeleta'ko seme azkar eta sanoa! Dagola bethi oraiko Eskualdun on eta zintzoa!

OSTIKOLARIAK.—Baionako ostikolari omen handikoek pherekaldi bat gaitza hartu dute Parisen Gaueko kaskoimen eskuetarik. Gutik egin du ez baitire behaztopatu. Beŕitz aŕi behar dute. Bainan ez dugu dudarik aldi huntan Eskualdunek irabaziko dutela. Aintzeart, Celhay, Inthamusu, Elissalde, Arotza izena dutenek ez dute kaskoinen kontra galdu behar!

ARAINTZA.—Itsasoan aŕaintzan dabiltzanek ez badute deus handirik atcheman, Ortzaiztar batek Eŕobin lau izokin atcheman ditu amuarekin aste huntan. Batek 10 kilo pisu zituen; bigaŕenak, 9; hirugaŕenak, 7; laugaŕenak, 5. Hola, ba, balio luke aŕaintzan ibiltzea! Ez baita bethi hola! Bainan ez da halere gezuŕa Eŕobi (erdaraz La Nive) izokinez aberastu dela zenbeit urte huntan eta aŕaintza maite dutenak ederki josta ditazkeela Uztaritzetik Donibane. Garaziraino...

UZTARITZEN.—Aste huntan Uztariztar bat galdu da. Aŕatseko zortziak ondochean aŕaintzarat joan da eta ez da gehiago etcherat itzuli. Itho da, itchura guzien arabera. Beŕogoita bi urte zituen. Bederatzi hauŕen aita zen. Zer zorigaitza

OHOINTZA.—Miaŕitzeko eliza batean ohoinak sartu dire gau hautarik batez eta bizpahirue diru-untzi hustu dituzte. Agian lasteŕ atchemanen dituzte gau-chori tzaŕak! Elizako diru pichkari lotzen dena zeri ez da lothuko?

SARAN.—Ilabete hunen hemeretzian jai bat polita izanen da Sarako heŕi ederean: Pilotaren Batasunak aurthengo chapelduneri eskaintzen dioten bazkaria. Ybarnegaray jaun deputatua izanen da maipuru.

PHAZKO EGUNAK.—Phazko egunean eta biharamunean pilota zartako hainitz aditu behar dugu aurthen: egunkariek eŕaten daukutenaz partidak jokatu behar dire Hendaian, Ziburun, Doniane-Lohitzunen, Kambon, Aŕosan, Donapaleen, Doniane-Garazin. Pilotako molde guziak ikusiko dire han eta hemen. Zoin hautatu beharko dugu?

HAUR PRODIGOA.

Euzkotar Umientzat

Atetxo itxusia

Arritokieta

II

Noiz edo noiz ireki zan aŕautza eta bere baŕutik atekume (1) aundi batek erten zuan. Atekumea oso aundia, oso itxusia eta trauskila zan.

—Bai itxusia dala!—esan zuan amak ikusi zuanean. —Ez du batere bestien antzik. Pabokumea ete degu ba? Laisteŕ ikusiko degu. Ume danakin uretara juango naiz, bai? eta an ikusiko degu zer egiten duan. Baña baldin on-ez-onean uretara sartu nai ez ba'du bultza ta neuk sartu erasoko det.

Au esan zuanean iluntzea zan, eta augaitik uŕengo egunerako utzi zuan umeakin uretara juatea.

Biaramon goizean, eguraldi edeŕa zegoala ikusj zuanean, artu zituan ate-emeak bere atekumetxo guztiak eta gaztelu zaŕaren inguruan zegoan uretara eraman zituan.

Bota zuan bere burua uretara, eta ume danak, batek besteak baño ariñago berdin egin zuten. Baita nekez jaiotako atetxo itxusiak ere. Ama umeak gora ta bera an zebiltzan uretan, ankak askaŕ erabiliaz, eta poz-pozik. Eta atetxo itxusiak ere bere anai aŕebak bezin ondo zegian iregi.

—Ez da au pabokumea antzaŕak ala esan ziran baña, —zion amak, berari begira. Ankatxoak zein ederki erabiltzen dakian ikustea besterik ez dago. Neure semea da. Eta ondo begiratu ezkero ez da gixajoa ain itxusi-itxusia ere.

"Rap, rap" umetxoak, emen iregi ederki egin dezute eta guazen orain ibaira; an ezagutuko dituzute beste ate eta atekume asko. Baña, ez gero nere ondotik uŕutiratu. Eta katurik ikusi ezkero zaitu ondo zeuen buruak, bestela "aitaren eta semearen" egin orduko jango zaituzte katuak.

卐 卐 卐

Ibai aundira iritxi ziranean egundoko eskanbila zebilen ur ertzean. Ate pilo bi ur gezako aingira buru baten atzetik zebiltzan batek nai eta besteak biaŕ, eta danak boŕoka bizian zebiltzan bitartean, etoŕi zan katua eta aingira burua beretzat.

—Ikusi ondo, ene seme alabatxuok—esan zuan ateak. —Ara, onelakotxea da mundua. Batzuek egin oi dute lana, eta beste batzuek eraman oi dute saria. Begira an datoŕen ate dotore areri. Kalkuta'koa da eta lokaŕi goŕi bat Eerabili oi du ankan, neskameak ilda sa kaldera eraman ez dezan. Al dezuten ederkiena egon, ankatxoak kanporantz bota ibiltzean, nik bezela; oso gaizki ematen du ankak baŕurantz botatzeak.

Atekumeak, al zuten onduen amaren esanak egiten alegindua z sartu ziran ibaira beste atien artera.

—Ara emen beste ate pilo bat!—esan zuan batek—len ere emengo jatekoentzat naikoa ate gerala uste det ba!

—Eta gañera, ez dago atekume itxusi ori onera ekarŕzeko eskubiderik—deadaŕ egin zuan beste batek.

Eta beste gabe beragana juan eta egundoko mokokadak ematen asi zitzaion lepoan.

—Aizak, i, lotzagabe!—aŕantza egin zion amak—laga eiok ia pake-pakean. Zer egin dik iri oŕek?

Eta "atoz onera, maite" esanaz bere ondora eraman zuan eta mokuakaz buruan eta lepoan igortziaz ate lotzagabeak aŕotu zizkion lumak berdindu zizkion.

Eta ate lotzagabeari begiratu itzala zuzenduaz: "Zu, neure ondoan ibili beti, gaxo ori" geitu zion.

(Daŕaike.)

(1) Nere eŕian, atea Bizkayan pata deitzen dioten egaztiari esaten diote.

Katalandarrak

Atzo etoŕi ziran. Bilbao'ko urj onetan agiri ziran ainbat katalandaŕ eta toki gustijetan aŕera ona egin yaken. Bizkai'ko bazteŕak ikusi-ondoren, Gernika'n egotaldi bat egin eben; Sukaŕieta'ko ilobija, be, ikeŕtau eben. Geure abeŕiko tokijak atsegingaŕijak ixan ei -yakez.

Gauŕ jayak, ostera, ospagaŕijak ixango dira. Bilbao'ko txaide baŕj bati Maciá zanaren ixena ipiñiko dautse. Gixon andi ari zoŕ geuntson olako zerbait. Catalunya'ko eŕijari bide zuzenak erakusten emon eutsozan eta elburu batera eŕi gustijak doiazala autaŕtu eban.

Katalandaŕok ondo aŕtubak ixango dira, euzko-eŕijak, ba, azkatasun-bila dabiltzanai aŕera ona egiŕen dautse. Frente Popular dalakuak euren aldera eruan nai dabez, baña katalandaŕok erakusten emon dautse eurentzat abeŕtzaliak lenengo malan dagozala.

Beraz Euzko-Gastedi'ko dantzarijak egingo dabez euren dantzaketak. "Lau aruak" deritxon dantzaketeak eta "Amaya"'ko ezpatadantzea. Bilbao'ko udeletxian, be, opalben andijak egingo yakez.

Bart gabez, Euskalduna pelota-tokijan batu ziran ainbeste notin eta alderdi geyenetakuak itz-egin eben. Euzko-Araudijari zirkin-eragin biaŕ yakola adirazi eben. Gustijak Araudi oŕen aldez dagoz. Beraz orainguan etoŕiko yakula dirudi.

Maciá zanaren alaba bat eguan mai-puru. Emakume oni aguŕ-egin eutsen geure alderdiko askok. Olantxe erakusten emon genduban Maciá zanarenganako matasuna eta Catalunya'ganako eskeŕ-ona.

Ikeŕtaldi au ixango al da abeŕi bijoen azkatasunerako. Areik eta geu, gustijok alkaŕtu biaŕ gara, geure eŕijok jauŕi dadixan eurei dagokijenez. Euzkadi'n dagozan bitaŕtian anaitzat aŕtuko doguz, baña ezkadixala gero aztu, orain aŕte, be, zeozer ikusijak gara-ta. Euzko-abeŕtzaliak eskumaŕak dirala-ta akijakulubak bila asten diranak, eztauke eŕijenganako maŕasunik.

Gauzak aldatu diralakuan gagoz; batzuk eta bestiak alkaŕ obeto ezagutzen dogu. Geure aguŕa Bilbao'n dagozan katalandaŕai eta Maciá'renganako maŕasun onek alkaŕtu gadixala.

Errijetatik

MOTRIKO

EUP...!—Opor luxe xamar ondoren emen gaituzue beŕiro, arturiko bidean uŕatzak eman gogoz. Luze izan da mutrikuaŕen ixilaldia; egiari zor azkenekoz noiz izan giñan ez gera oroirtzen beñepein.

Eta geure patxara alakoa. Ainbeste egunez, atrakatu ere ez eta oraindik eup aka sartzeko ausardia daukagu.

Izane ez da eŕua gurea, guri pakean utziten digutenena. Onelatzu gatozen bakoitzean "Lauaxeta,,'k jipoi eder baña emango balizkigu besterik izango litzake gure jokera; ikasiko genuke arturiko bideari obekiago jaŕaitzen.

ASTE-DONEA.—Aste Donean gaude. Egun auetan gure gogoak gurutzearen ego-pera doaz. Otoitz egunetan gaude ta gure begiak eleizarik, eleiza dabiltzan kristau jendea ezin galdu du. Sermoilariak Josu-kristoren nekaldiko egun itzalak gogai-azari digu.

ERIOTZA.—Igarotako astearte zortzi gaxo luze ondoren eriotza on baterako gert-gert, il zitzaigun San Martin 'daŕ Miren "Saŕuŕan-zaŕeko" neskatil gastea.

Eŕian oso ezaguna genuen, Emakume Abeŕtzale-Batza'ko bazkidea ere bai ta auek bide, ostetza aundiak lagundu zion ilobirarte.

Laguntzuen diogu atsekabean bere sendikoai ta zuk irakurle Aita gure bat Miren aberkidearen gogo alde (Goian bego).

AŔANTZALEAK.—Aspaldin aŕantza-leak oso uŕi dabiltz. Bokart-aroan da- delarik, jun añean urbiltzen dira. Iño- ko urteetan ikusi izan ditugu aŕan- edeŕak baño aurtengoak ez du ema- nai. Orain arte ezagutu degun baer- dakoena bada beñepein aurtengoa.

LANIK EZ.—Alberdi'taŕ Nikomed- 'ren lantokitik lanik sortzen ez zaizk- olako bost langile kanpora atera dit- ta baŕuan gelditu diranak astean iru egunez asi dira. Lengoak zelabaitekoak badira, oraingoak ez dira izpar onak. Au da alde guzietako "ez" beaŕa.

ARPIDEAK.—Joan zaiguzan aute- kundeetako Gastuak Alderdia'ri aŕtu joango litzaizkiokela-ta Euzko-Batzo- kian arpide bat irikita dago iñork eme- luzatu nai badu.

Aranburu'taŕ Joseba'ren sendiaren- tzat ere irikita dago ta iñor biotzdu- nak bada eman beza lenbailen bere oparia.

¡ENTZUN, ENTZUN!—Euzko-Batzo- kia ta Uri-Buru-Batzaŕak datoŕen aste- lenerako (ilak 12) Galbaixo baseliza- jai politak eratu dituzte.

Goizeko zortziretan Batzokiko txis- tulariak buru dirala ta kalejira abia- joaz irteera.

Bederatziretan, Aranburu'taŕ Joseba, Joseba Done egunez Ernani'n il zuten aberkideen gogo-aldezko jaupa ixila.

Ondoren, itzaldia. Ez dakiguz izen- kan, baño bai Euzkadi guzian ezagu- nak, eta JEL-azi ereintzale bikain bi- itz egingo dutela.

Au bukatzian dantzaldia.

¿Ez alda polita? Bai, nik jakin. Ba, ba, gertu guziok.

Andoni.

Uaŕa.—Idazki au, berandu-sam... tu ixan dogu.

Txokoliña

Igandian, Yurre'n, Soloeta'tar Koldobika'rena zabaldu zan Arantzazu'ko Zelai'tik, 5 minutuko bidia dago.

An ezta igartuko

NERE LENGUSU IL ZANARI

Amar urte:
Lora gazte.
Lili-kukulu zabal bagea.
Eztiz betea.
Iñoren biotzek murtxatzekea...
Ez ikutu,
Ez itxartu,
Lo bai-datza amets urdiñetan...!
Gazte aroan
Oi danez, etorkizun loratzen...
Ixo, ixo!
So orain, so:
Amabost urte. Iŕiz du mosua.
—Ze loratxua!—
Espan-oŕiak goŕi, zurail ingurua.
Geŕi xalo.
Jolas gogo.
Pospolin dantzari geldi gaitza.
Mutila baita!
—Zenbat biozkondoren ametsa...!—
Norentzat aiz i,
Lora guri?
Norentzat duk ezti goxo ori?
Ene, oar: Bat, bi...
Zenbat maitale itzul-birari...!
Loran zela,
Ako erla
Ederzaleak atxonez mozkor?:
Alatsu or
Maitale mordoa maitasunez lor...
Ogej urte:
Lora eze.
Oŕiak zabal, nai beste argiz.
Itxadopen iŕiz.
—Goi izar dirdaitsuen egaŕiz...?—
Ixo! Ene...!
Nora ote...?
Nora gure itxadopen loratxu...?
Nork erauzi du...?
Nork ainbeste biotz puskatu...?
Ixo, ixo!
So gora, so:
Aingerutxuak eraman bai-dute!
Iñork ez beste
Maite bai-zuen Yaikoak ere!...
Goian bego!
An ezpaita iñoiz igartuko!
Goian bego!

Ereño.

Bergara'tik.

Uaŕa. — EUZKADI izpaŕingijan atiak zabaltzen dautsoguz oleŕkari on-on bati. Orain aŕte ezkara bere lanetan tinkatu, baña orainguan goraldu biaŕ. Euzko-literaturan ixaŕ baŕija agiri yaku. "Ereño,,'ren bertso oneik santsu onena dira. Geure bijotzetik eskatzen dautsogu jaŕai bide onetatik, lan berezijak egiŕeko sortuba baita.—Lauaxeta.

Irrati - Tramankulubak

ONENAK
MERKIENAK
IŔATI-ETXIA
Urrestarazu ta Lagunak
Plaza Elíptica, 3. Uŕutizkiña, 10.752.

ONDAROA

UDALAREN ERABAGIJAK.—... onen 4'gaŕenan Udalak egin eban ba- tzaŕian erabagi onetxek artu ziran.

Aŕantzalien Bazkun edo Kofradija- osagile eta botikarijo laguntzetarako urteoro iru mila laurleko emotia. Ze- gazti edo alameda auŕian dagozan ix- edo komunak ainbat lasteŕen bera be- tatia eta euren ordez baŕijak egitia Le- keitio'rako bidian, Guzuŕetxia'ren au- ŕian dagon lekutxuan. Irol onek lu- azpikuak ixango dira.

Solabaŕieta jaunak idazki bat age- tu eban. Ondiño urte gitxi dirala ikas- tola baŕijak egin ziran-aŕen eta gera- ago Aŕantzalien-etxian eta Udal-etxian ikastola baŕi bi zabaldu diranaŕen, eta- ko ume gustijak sartzeko aña ikasto- larik eztagolako eta eŕijaren ugari- tzea dala-ta ikastolen biaŕixan au ge- yagotuko dalako ikastola baŕijak egi- tia eskatzen dau. Oŕetarako baña ikas- tola oŕeik egiŕeko tokirik eztagolako lengo ikastolen gain egitia ixango li- txakela uste dau Solabaŕieta jauna. Ikastola baŕijak egiteko estaduak ikas- tola bakotxeko amabi mila pezeta emoten dauz. Ori dala ta erabagi au artzia eskatzen dau.

Lenengo: Lengo ikastola baŕijen ga- in beste lau ikastola egitia.

Bigaŕen: Oŕetarako biaŕ dan expe- dientia ainbat lasteŕen astia.

Solabaŕieta'ren erabagi-gayok osoki ontzat artu ebezan beste kontzejal gustijak.

Alkate berberak bigaŕen idazki ba- agertu eban. Ara labuŕ bertan esate- ebana: 1934'ko bagila'ren 15'gaŕeneko lege baten bidez Udal eta Aldundi- irakasle edo maixuentzat egiten eba- etxoin edo bixileku bakotxeko iru mi- pesetaz laguntzen eutson estaduak. G- roago beste lege baten bitartez lagun- tza ori sei mila biztanle baño gitxija- dabezan eŕijentzako bost mila lauŕle- kora igoten dau. Ondaŕu'ko uda- gaur irakaslien etxiak dirala-ta urte- ro bost mila laurleko ordaintzen da- eta laster ikastola baŕijak egin ondo- ren saspi mila inguru ordaindu biaŕ- ko leukez. Origaitik, estaduak emo- daben laguntzea aprobetxauaz idazki- egin dabenak uste dan irakaslientza- etxe baŕi bat egin biaŕ litxakela. E- oŕen berengo oña umetxoen ikasto- edo Erti eta Lanbide ikastolarako ge- tu al-litxake. Etxe au egiteko leku- onena Antigua'ko Ama Neskutz-ka- Udalak daben tokija ixango litxake.

Au gustijau agertu ondoren erabagi- -gai auxe aurkeztu eban: Irakasli- tzako etxia egin ixentau dan toki- eta oŕetarako biaŕ diran lan edo expe- dientia asi. Erabagi-gaj au be osoki- ontzat aŕtu zan.

Baita be erabagi eben Antigua'ko Ama Neskutzaren kalia konpontzia.

Pasku eguerdijan erespatzak emo- go daben erestaldi edo kontziertu- eresi onetxek joko dauz:

"La del manojo de rosas" (pasodo- ble), Sorozabal'ena.
"La del manojo de rosas" (fantasia)
"Bohemios", Vives'ena.
"Ordizia", Mokoroa'rena.

Lirain.

EL CANDADO Burdin-salokija
"Austriatar" kodañerik onenak: "Jembach"-"Toro"-"Bellota"
Ollotegijetarako burni-sarerik onenak, BILBAO'KO RIBERA, 9'an. idoroko dozubez beti. ¡EZ ERRATU GERO!
EL CANDADO Burdin-salokija